



Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 27koa. Horren bidez, ikastetxe batean berdinen artean egondako tratu txarren kasu baten gainean jardun behar dela ondorioztatzen da.

Aurrekariak

- 1.- Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 2. mailan ikasten zegoen bitartean berdinen arteko tratu txarren kasu batean egon zen gazte baten familiak erakunde honen esku-hartzea eskatu du, hezkuntzako agenteek egoera horren aurrean jardun zuten moduagatik.

Familia horrek gure erakundera jotzean izan dituen kezkarik handienak honakoak izan dira, zehazki: jarraitu zen jarduera-prozedurari buruzko informazio-falta, batetik, eta praktikaturako jarduerak egokiak ziren planteatzeko asmoz aurretiaz kontsultatu zituzten hezkuntza-instantzia desberdinen erreakzio-falta, bestetik, beraien ustez ez zutelako piztutako gatazkari bidezko tratamendua ematen lagundu.

Ohikoa den bezala, kexa onartzeko nahitaezko tramiteak egin ondoren, erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunen lankidetzara eskatu zuen.

- 2.- Erakunde honen esku-hartzeari esker hezkuntzako ikuskaritza familiarekin harremanetan jarri ahal izan dela eta eskatutako dokumentazio oro beren esku jarri dutela baieztatu dezakegu.

Halaber, ikuskari nagusiak txostena idatzi du, honakoa adieraziz: “(...) reconoce y se hace eco de la difícil situación en la que se vio envuelta la familia y especialmente su hija, ante el acoso sufrido, y el sufrimiento que provocó en la misma.

Comparte también la necesidad de que los agentes educativos debemos desterrar este tipo de comportamientos de los centros escolares, lograr que las relaciones entre los alumnos se rijan por el respeto y la consideración mutuas, alejadas de todo tipo de acoso y que este sea un objetivo por el que todos debemos apostar sin vacilación.



Sin embargo, aun reconociendo que algunas actuaciones se podrían haber mejorado, quien suscribe valora que el escrito del padre no refleja la totalidad de los hechos sucedidos ni las intervenciones realizadas por el centro educativo y por otros agentes que tomaron parte en el proceso, cuyos objetivos fundamentales fueron restaurar la seguridad de (...) para impedir de nuevo el acoso sufrido, así como restablecer las relaciones en el seno de su grupo aula y en el alumnado del nivel educativo, que se había deteriorado a raíz de sucesos ocurridos.

En este sentido, quien suscribe espera que la documentación requerida al centro (...) haya proporcionado los datos suficientes que les llevaron a solicitarla.

- 3.- Hala ere, gazte honen familiak puntu batzuk ezeztatu nahi ditu, eman zaizkien jarduera-txostenetan islatu denari dagokionez. Hori horrela, Arartekoari eskatu dio tratu txarren egoerak jorrazteko ezarritako protokoloak betetzeko orduan - eta behintzat kasu honetan- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko agenteen jarrera uzkurra izan ote zen egiaztatzeko.

Gogoetak

- 1.- Arartekoaren erakundeak beti baloratu izan du oso positiboki ikastetxeetan berdinen artean gerta litezkeen tratu txarren aurreko beharrezko hezkuntza-jardunerako jarraibideak ezartzen dituzten jarduera-gidak ezartzea. Horren adibide dira bere garaian Ikastetxeetako Bizikidetzak eta Gatazkei buruzko Txosten Berezian sartu ziren balorazioak (234. orria).

Oso positiboa iruditzen zaigu, halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hartu berri duen konpromisoa, berdinen arteko tratu txarrekin lotutako episodio posible guztiak ahalik eta arintasun, eraginkortasun eta segurtasun handienaz jorrazte aldera. Horretarako, bi gida berriak (*Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida* eta *Eskolan cyberbullying-aren aurrean jarduteko protokoloa*) onartu dira eta beharrezko egokitzapena lortu nahi dute, ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko araudi berriaren eszenatokian.

- 2.- Gida horien edukia aztertzen bada, jarduera ororen helburu nagusia ustezko biktimari babes, laguntza eta segurtasunerako bermea ematea da.

Horrez gain, indarkeria-egoeren testuingurua aztertzeko konpromisoa ere aipatzekoa da. Hau da, une honetan, eta egungo errealitateari erreparatuz gero, informazioko eta komunikazioko teknologia berrien bidez berdinen artean egiten diren eraso geroz eta ugarietara aurre egin behar zaie (ziber-erasoa edo *ciberbullyinga*) eta, horren harira, ikastetxeek jarduteko betebeharrak dutela ulertzen da, nahiz eta era honetako erasoak ez gertatu eskolan, betiere hezkuntza-jarduerarekin kausa-ondorio harremana badago.

Gida hauetan adierazitakoaren arabera, familiekiko komunikazioan zaintzak areagotu behar dira, lasaitasuna eta konfiantza transmititu eta seriotasunez jokatzeko ari dela erakusteko. Hori horrela, bilera bakoitzaren helburuak kontu handiz eta argi eta garbi planifikatzea, familiekin bereizita lan egitea, gatazkak saihestea... beharrezkoak direla jaso da.

Baina, hala ere, era berezian azpimarratu nahi dugu ideia hau: gida horiei jarraiki, ikastetxeek tratatu txarrak dauden edo ez dauden zehazteko eta horren ondorioz jarraitu beharreko jarduerak ezartzeko asmoz aplikatu behar dituzten prozedurek bete egin beharko dituzte sistematizazio eta eraginkortasuneko printzipioak, ez dadin jarduera "burokratizatuen" arriskuan erori. Erakunde honek hainbat txostenetan eman du arrisku horren berri.

- 3.- Ebazpen honen 3. aurrekarian azaldu dugunez, gazte honen familiak, kexan zehar egindako kudeaketan ondoren, egindako esku-hartzearen alderdi edo puntu batzuk ezeztatu nahi ditu. Halaxe gertatzen da, adibidez, eta zehatzak izateko asmorik gabe, jarduera-protokoloa irekitzeko moduarekin, kanpo-aholkularien esku-hartzearen izaerarekin, zenbait jarduerari emandako ikuspegiarekin, eta abar. Desadostasun horien ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunek tratatu txarren egoerak jorrazteko protokoloak jarraitzeko orduan erresistentziarik jarri ote zuten egiaztatzeko adierazi digute.

Beharbada komenigarria da berdinen arteko tratatu txarren kasu honen ondorioak larriak izan direla aipatzea, eta ez soilik ikaslearentzat, baita bere familia guztiarentzat. Azkenean, izan ere, beste herri batera lekualdatzeko erabakia hartu behar izan dute. Horrenbestez, bizikidetzaz arazo bat daukagu

eta ez da modu arrakastatsuan bideratu. Hortaz, gure ustez, trataera egokia ez emateagatik familia honek hartutako erabakiak azal ditzaketen alderdiak aztertzeke balio behar digu. Horren harira, hezkuntzako agenteak protokoloak jarraitzeke orduan uzkur egon ziren ala ez egiaztatzea ez zaigu beharrezkoa iruditzen, eskatzaileari ez bezala. Aitzitik, garrantzitsua iruditzen zaigu nahiko zaindu ez direlako planteatutako jardueraren porrota eragin ahal izan duten alderdiak zeintzuk izan diren zehaztea, ikastetxean ez baita lortu berriz bizikidetzeta-giro normala ezartzea. Horretarako, 2. gogoetan azpimarratutako helburuak errepikatuko ditugu.

- 4.- Azaldu dugun bezala, gida edo jarduera-prozedura hauen helburu nagusia tratu txarraren biktimari babesa, laguntza eta segurtasuna ematea izan behar da. Argi dago kasu honetarako diseinatutako jarduera-planak asmo hori zuela, honakoak proposatu baitzituen ikasle erasanarentzako helburu gisa: el *apoyo y reconocimiento*, el *apoyo emocional*, la *reconstrucción y reestructuración cognitiva y emocional* y la *intervención resiliente*. Esku-hartzearen garapenari buruz egindako txostenak erreparorik gabe onartzen du: *"no hay constancia efectiva ni seguimiento del plan que se ha aconsejado siga la alumna (...) paralelamente al grupo"*. Azalpen posible gisa ikaslea maiatzean eta ekainean ez zela eskolara joan eta proposatutako kanpo-jarraipen indibiduala ez zela etengabea izan aipatzen dira, beste kausa batzuen artean. Hala eta guztiz, sortutako zailtasunak gorabehera, inola ere ez zen planteatu programatutako esku-hartzean aldaketa posibleak egiteko beharrezana.

Bestalde, espedientean jasotako dokumentazioari esker egiaztatu ahal izan denez, esku-hartzea baino lehenagoko azterketa eta diagnostikoaren lehenengo fasean hainbat bilera egin ziren ez soilik kexa sustatu duen familiarekin, baita gainerako familia ukituekin ere. Bilera horiek, kasua ezagutu zuen kanpo-aholkulari baten aitortpenen arabera, tentsio handiko giroan garatu ziren. Beharbada horregatik ezarriko zuen diseinatutako jarduera-planak hona helburua familiarentzat: *"mantener el contacto continuado, informar del estado de la intervención de forma generalista para evitar intromisiones"*. Ildo horretatik, helburu honen asmo ona ulertu dezakegun arren, benetan uste dugu praktikan izan duen aplikazioak arriskuan jarri ahal izan dituela familiekiko harremanetan nagusi izan behar diren jarraibideak, beraiei lasaitasuna eta konfiantza transmititu eta seriotasunez jokatzeko ari dela erakuste aldera. Berez, gazte honen familiak *"baztertuta"* sentitu dela adierazi du. Bere esanetan: *"prozesutik bota gintuzten eta ez ziguten parte hartzen utzi"*. Are

gehiago, bere bertsioari jarraiki, egoera horren ondorioz egin du porrot, neurri batean, trazatutako jarduera-planak. Izan ere, kanpo-jarraipena egiteko aukera baztertu da eta beharbada kontuan hartu izan balitz ikaslearentzat planteatutako esku-hartzea berrikusi egingo litzateke.

Bestalde, txostenean jasotzen den diagnostikoak zera baino ez dio, berdinen arteko tratu txarra egon zela "*exclusión y marginación pasiva*" erara, taldearen eskutik. Ez da ziber-erasoaren aukerari buruzko oharrik planteatzen. Aipamen bat baino ez da ageri gizarte-sareen erabilerari buruz, egoeraren aurrekariak azaltzean. Ondorioz, behaketa sistematizaturen bidez diagnostikoa aztertzeko aukera formalki irekita egon den arren, berez ez dela halakorik egin pentsatu dezakegu, ez behintzat behar zen bezala. Izan ere, egindako jarduerari buruzko azken txostenak ez du jasotzen horren gaineko oharrik.

Hori horrela, arduratuta gaude aipatu berri dugun azken txosten honek era positiboan azpimarratzen duelako soilik usteko erasotzailea den ikaslearekin eta gainerako ikasle inplikatuekin jarraitutako esku-hartzea eta kanpoan uzten duelako tratu txarraren biktima izan den ikaslearen jarraipenari buruzko edozein kritika, egindako diagnostikoaren eta hasieran proposatutako esku-hartzearen arabera, baita bere familiarekin edukitako harreman tirabiratsuei jarraiki ere.

Hori guztia dela eta, erakunde honek espediente honetan izan duen esku-hartzeari amaiera jarriko diola erabaki du, eta, horretarako, honako ondorioetan laburbiltzen den ebazpena eman du

Ondorioak

Positiboki baloratzen dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxeetan berdinen artean gertatzen diren tratu txarrekin lotutako episodio posible guztiak ahalik eta arintasun, eraginkortasun eta segurtasun handienaz jorratzeko egiten duen ahalegina. Horretarako neurria izan da, esate baterako, *Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida* eta *Eskolan ciberebullying-aren aurrean jarduteko protokoloa* gida berriak onartu izana.

Hala ere, kexa honetan aztertutako kasuaren errealitatearen ondorioz, berriz ere azpimarratu behar dugu jarduera burokratizatuak ekidin behar direla eta tratu txarren errealitatearen diagnostiko ona egiteko, biktimei laguntza, babesa eta segurtasuna emateko eta ukitutako familiekin konfiantzazko harremana eta komunikazio ona izateko helburu saihestezinak era arrakastatsuan bete eta aseko dituzten gida berri hauen aplikazio sistematiko eta eraginkorra sakondu behar dela.